

OINARRIAK

idatzitako kontaketa onena saritzeko. Sari guztiak legez ezarritako atxikipenei lotuta egongo dira

5.- 2017ko martxoaren 1ean hasiko da lanak aurkezteko epea, eta 2017ko apirilaren 21an amaituko da. **Santurtziko Emakume eta Berdintasun Zerbitzuaren** bulegoetan aurkeztu beharko dira (Murrieta etorbidea, 22, solairuartea 11) halaber, urriaren 1eko Herri Administrazioen administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

6.- **Santurtziko Udalak** izendatutako epaimahaiak **2017ko maiatzaren 16** baino lehen emango du epaia, kideen gehiengo soilaren bitartez hartu beharko dena.

Ezin izango da epaimahairen aurka egin, gainera epaimahaiak eskumena izango du eztabaidan sortzen diren arazoak ebazteko.

7.- Epaimahairen iritziz lan bakar batek ere ez balu saria lortzeko behar den meriturik, sariak eman gabe gera litezke.

8.- Epaimahaiaren erabakia eta sari ematearen berri **Santurtziko udaletxeko** Informazio eta **Emakume eta Berdintasun Zerbitzuko** bulegoetan eta hainbat komunikabideetan emango da.

9.- Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek oinarri hauek osoz onartuko dituzte eta oinarrietan agertzen ez denari buruz, epaimahaiak hartuko dituen erabakiak ere bai.

10.- Saria lortu duten lanak **Emakume eta Berdintasun Zerbitzuaren** eskuetan geratuko dira. Obra horiek ustiatzeko (kopiatu, banatu eta/edo saldu) eskubideen titulartasuna **Santurtziko Udalarena** izango da. Horrela, hemen ezarritako jabetza intelektuala, denbora zehaztu gabean beste norbaiti utzi diotela jendaurrean ager dadin, beharrezko agiria egin beharko dute egileek eta eskatuko balitzaie agiri hor aurkeztu beharko lukete.

Dena dela, alde zuzenetik Santurtziko Udaleko **Emakume eta Berdintasun Zerbitzuari** baimena idatziz eskatuta, lana edo lanak bere argitalpenetan erabiltzeko aukera izango du idazleak beti ere espreski adierazita kontaketa non eta zein urtetan saritu den.

11.- Sarririk lortu ez duten lanak epaia argitaratu eta hurrengo 30 egunetan berreskuratu ahal izango dira.

12.- Saria lortu duten obraren egileak berak hartu beharko du saria edo bestela sari banaketara euren ordezkariaren bat bidali beharko dute.

13.- Deialdi honetan sor daitezkeen arazoak ebazteko eskumena **Santurtziko Udalak** baino ez du izango eta baita oinarri hauek interpretatzeko eskumena ere.

1.- **Santurtziko Udalak (Bizkaia), Emakume eta Berdintasun Zerbitzuaren** bitartez, “**Emakumeen kontakizunak**” kontakizun laburren **XVIII. lehiaketarako** deialdia egin du. Bertan aurkeztuko diren lanetan hurrengo gai hauek jorratu beharko dira: gizon eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasuna, eta gizarte- zein familia-betebeharretan dituzten erantzunkidetasuna. Edizio honetan bereziki sarituko dira emakume borrokalariak euren lan- eta soldata-eskubideak aldarrikatzeko egindako lanari buruzko kontakizunak.

2.- **18 urte baino gehiago dutenek** parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

3.- Kontakizuna egiteko honako baldintza hauek bete beharko dira:

3.1.- **Euskaraz zein gaztelaniaz** egin ahal izango da, baina beti ere bietariko batean, ezin izango da lana bi hizkuntzetan aurkeztu.

3.2.- Aurkeztutako lanak gutxienez 5 folio eta gehienez 10 foliokoak izan beharko dira, DIN A-4 tamainan, **Times New Roman 12** letra eta leerroarte bikoitzean mekanografiatuta, orrialde bakar batetik idatzita eta orrialde bakoitzean gehienez 30 lerro daudela.

3.3.- Aurkeztutako ipuinak **jatorrizkoak** eta inoiz **argitaratu gabekoak** izan beharko dira. Beste lehiaketa eta ekitaldiren baten saririk jaso izan balute ezin izango dira lehiaketa honetara aurkeztu.

3.4.- Idazle bakoitzak **gehienez hiru** kontakizun aurkeztu ahal izango ditu.

3.5.- Kontakizunaren lau kopia aurkeztu beharko dira, sinatu gabe aurkeztuko dira eta eurretan izenburua eta lema baino ez dira agertuko. Kontakizunarekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da eta gutunaren barruan egilearen izena, abizena, helbidea, telefonoa eta NANaren kopia agertu beharko dira. Gutunazalaren kanpoaldean, lema eta kontakizuna zein hizkuntzetan idatzi den adierazi beharko da.

4.- Lehenengo sariak 600,00 euro jasoko ditu eta, era berean, 300,00 euroko akzesita ere egongo da hizkuntza modalitate bietako bakoitzerako. Halaber, 300,00 euroko sari berezia banatuko da, santurtziar idazle batek bai euskaraz bai erderaz



Kontaketa Laburren XVII. Lehiaketa “Emakumearen Kontaktak”

Antolatzailea:



Gizarte Ekintza eta Berdintasun Arloa
Emakume eta Berdintasun Zerbitzua
Área de Acción Social e Igualdad
Servicio de Mujer e Igualdad